

Gazte Koordinadora Sozialista

ARABA ETA BIZKAIKO GAZTE TOPAKETA SOZIALISTAK, APIRILAREN 5ETIK 7RA LAUDION

2019ko martxoaren 14(e)an

Gaur gure lehendabiziko ekimena aurkeztu asmoz gatoz zuengana, bame nmailako lanak egiten ibili ondoren jardunerako gogotsu balkaude, jarduna baita, hain zuzen ere, gure helburu eta beharizanei erantzuteko era erreal bakarra. Hona hemen, ildo politiko sozialistaren plazaratzea, eta ildo honen eramalle den borroka komunitatea elkatzea helburu duen jardunaldia: Araba eta Bizkaiko Gazte To-paketa Sozialistak. Topaketa hauek Laudion izango dira apirilaren 5etik 7ra eta Idatzi honen bitartez etortzera gonbidatu nahi zaltuztegu.

Gizarteak sortzen duen despolitizazioaren aurrean guri bizitza politikoa sustatzea dagokigulako antolatu dltugu topaketa hauek. Gure bizimodua bizimodu politiko da eta gure bizitzaren momentu guztiak norabide horretan lerrokatu behar ditugu: menderakuntza eta zapalkuntza burgesei aurre egiteko hautuan, hain zuzen ere. Izan ere, gure aisialdi momentuak, festa garaiak, ingurukoekin harremantzen garen uneak, hausnarketa uneak, ikasketa garaiak eta ikasketa ereduak, kultura, etab., despolitizatuta ageri zaizkigu egun. Ageri diogu, bizitzaren itxurazko neutraltasun horren atzean erreala den indar politiko bat ezkututzen delako, menderatzaileen interesetara gure bizitza azpiratzen duena, hain zuzen ere. Horren aurrean, bizimodu kolektibo eta politikoa elikatzea dagokigu. Kolektiboa diogu, izan ere, gure arazoei eraginkortasunez erantzuteko modu bakarra, bere egoeraren jabe den eta helburu argien baitan ongi antolatuta dagoen kolektiboaren indarra da. Bestela, nola egin aurre langile klaseko kideon aurkako etxe kaleratzeei? Nola egin aurre militantziari jartzen dizkioten isunei? Politikoa diogu, izan ere, botere sozialista ekoizteko gure gaitasun guztiak politikoki antolatzea beharrezkoa zaigu. Gure bizitzei zentzu politikoa ematea zera da: gure gaitasunak antolatzea botere burgesari aurre egiteko eta proletargoaren derentsa egiteko.

Bizitza politiko sustatzea, beraz, gure bizitzaren momentu guztiak politizatzen joatea da: teoria, harreman ereduak, aisialdia, kultura, etab. Zertarako politizatu harremanak? Printzipio etikoetan oinarritutako harreman ereduak

garatzeko, hau da, pertsona eredu konprometitua sortzeko, kolektiboaren interesak detendatuko dituen eta ondorioen erantzule egingo dena, ingurukoez arduratu eta kapitalismoak gehien kolpatzen dituen detentsa egingo duena. Zertarako polltizatu teoria? Gure jardunbidea argituko duen bitartekoa izan dadin eta ez dadin akademian dirua irabazteko balio duen tresna izan; dominazio burgesa eta bere azalpen moduak ikertzeko balioko digun bitartekoa izan dadin, eta ez dadin izan berau ezkututzen duen horma zeharkaezin eta arrotza. Zertarako polltizatu ospakizunak? Gure boterea handitzen ari garela ospatuko nahi dugulako eta ez dugulako zoriontasun abstraktua ospatu nahi; gure jendea babestu dugula ospatu nahi dugulako eta ez dugulako indibidualismo kapitalista elikatzen jarraltu nahi; gure kontrolpeko guneak egokitu ditugula eta gure helburuak lortu ditugula ospatu nahi dugulako eta ez dugulako nahi gure miseria eta inpotenzien azalpen uneak izatea. Hori guztia eta askoz gehiago da bizitza politikoa sustatzea, eta horretarako egin nahi dugu topo Laudion.


Gure klase etsalaren oldarraldi etengabeari aurre egiteko lehen pausu esentziala babesaren antolatzea dela deritzogu. Horretxegatik hasiko ditugu topaketak babes-sare espezifiko ezberdinen mahai-inguru batekin. Halaber, babes-sare espezifiko horiek mahai beraren bueltan topo egiteko arrazoi, batzen dituen, galtzaren erroa komuna delako tesia da: guztien oinarrien klase menderakuntza dagoen ziurtasuna. Bigarren egunean gazte problematika klase Ikuspegitik aztertzeko saio bat izango dugu lehenik eta ondoren elkartasuna antolatzearen edota saretearen beharraz hausnartuko dugu. Hirugarren egunean, berriz, harreman eredu komunistaz eta kulturaren klase izaeraz jardungo gara. Tartean jakintza tekniko ezberdinak lantzeko taller praktikoak eta borroka komunitatea sendotzeko jolasak, bertso afari bat eta Ziakhus raperoaren diska berriaren aurkezpen kontzertua ere izango ditugu.

Laudion bertan gosaldu, bazkaldu eta afaltzeko aukera egongo da, baita lotarako lekua ere, nahi duenarentzat. Topaketak eragingo dituen gastu ekonomikoei aurre egiteko bonoak salduko ditugu 15€tan. Salmenta puntuak zeintzuk diren hurrengo egunetan jakinaraziko dizuegu. Besterik gabe, sar itzazue motadlan zaku, esterila eta grin iraultzailea eta parte hartzera anima zaitezte. Laudion Ikusiko dugu elkar!

Gora Euskal Herria Askatuta!

Araba eta Bizkaiko Gazte Topaketa Sozialistak, apirilaren 5etik 7ra Laudion

Gora Iraultza Sozialista!

 Permalink:
(QR code, URL corta, URL)



<https://wp.me/paElvn-q5J>
<https://boltxe.eus/2019/03/14/araba-eta-bizkaiko-gazte-topaketa-sozialistak-apirilaren-5etik-7ra-laudion/>

 <https://www.boltxe.eus>
 boltxe@boltxe.eus
 <https://www.boltxe.eus/denda>
(Boltxe Liburuak)
 <https://twitter.com/boltxe>
 <https://fb.me/boltxe.kolektiboa/>